

PLAN BAT



Helburu bikoitza duen aurrezki-sistema.

1 / 6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazgarria da, 1/6 arrisku txikienaren adierazgarria izanik eta 6/6 handienarena.

LABORAL Kutxa Kreditu Entitateen Gordailuak Bermatzeko Fondora atxikita dago, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege Dekretuak aurreikusitakora. Fondo horrek gaur egun bermatzen duen gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da gordailugile bakoitzeko.

Indarrean dagoen Plan 1 bat duten bezeroek bakarrik agindu ditzakete eragiketak, euren ohizko ekarpenak mantendu edo eteteko.

Guraso edo aitona-amonek seme-alaba edo bilobei oparirik onena eman ahal izango diete, produktu horri esker: etorkizun ona.

AURREZKI-plan honen helburua da erosotasunez eta malgutasunez seme-alabarentzako, haur besoetakoarentzako edo bilobarentzako aurrezki bat eratzea, 18 urte betetzen dituenean erabil dezan, unibertsitatera joateko, gidabaimena ateratzeko, atzerrira bidaiatzeko...

Bi aukera daude:

- «Arriskudun» aukera.

Gurasoetako baten heriotzagatik diru hori ez dela kobratu gabe geratuko bermatzen du; halakorik gertatzen bada, Lagun Aro egingo da ordaintzeko dauden primen kargu. Horrela, gertatzen dela gertatzen dela adingabeak 18 urte betetzen dituenean aurreikusitako kapitala jasoko duela bermatzen da.

- «Arriskurik gabeko» aukera.

Aseguratua (gurasoak) hilez gero, adingabeak une horretara bitartean metatutako saldoa gehi aparteko kapital txiki bat (500 €) jasoko du.

Ezaugarriak:

- Malgutasuna. Premiaren eta aurrezteko gaitasunaren arabera, Plan Batean egin nahi duen ekarpena aukeratzen du bezeroak, eta nahi duenean alda dezake.
- Iraupena. Plana irekitzen denetik adingabeak 18 bete arte iraungo du.
«Arriskudun» aukeran, bost urtez luzatzeko aukera izango da.
- Likidezia. Kopuruaren zati bat edo osotasuna erreskatatzeko aukera dago.
- Errentagarritasuna. Gutxieneko interes bermatua du, kontratuak irauten duen bitartean. Horrek segurtasun eta egonkortasun handia ematen du. Horrez gain, errentagarritasun osagarria ere lor daiteke, mozkinetan parte hartzearen bidez, eta sei hilean behin jakinarazten da.

